

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

IDATZIZKO AZTERKETA

ARGIBIDEAK

 **Hizkuntza eskakizun honen azterketak bi zati ditu:**

Ahozko azterketa

- Ahozko azterketa, idatziaren ondoren egingo da. Non eta zer ordutan egin behar duzun, irteeran esango dizugu. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko ahozkoa eta idatzia, biak gainditu behar dituzu. Ez zaitetz joan, beraz, ahozkoa egin baino lehen.
- Ahozko azterketan elkarrizketa izango duzu aztertzaileekin. Egiten hasi baino lehen, haiek esango dizute zeri buruz hitz egin behar duzun. Jakina, zeure euskalkian hitz egin dezakezu eta euskara batuan ere bai.

Idatzizko azterketa

- Idatzizko azterketak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 30 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta bertan jartzen duena egizu.
- Idatzizko azterketaren ariketak boligrafoz egin behar dira; saia zaitetz letra txukuna egiten.

1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Cloze-testa
- **Ariketa:**
 - Ondoren 50 hutsuneko testua daukazu.
 - Zenbaki bakoitzak hitza kendu dela adierazten du.
 - Aukera ezazu erantzun-orrian zenbaki bakoitzari dagokion hitza.
 - Ezer egin aurretik artikulua osorik irakurtzea gomendatzen dizugu.

HILTZAILE IKUSEZINA

Edozein gerratan bada hierarkiaren maila guztietan ezkututzen den sekreturen bat. Armadatik hasi, gobernuetatik jarraitu eta komunikabideekin bukatu arte ukazioa eta isiltasuna nagusi izan ___1___ da. Gerra modernoetan, *uranio gutxitua* kontzeptua isilpeko txostenetan ___2___ ez da aipatzen. Golkoko lehenengo gerran, Palestinan, Jugoslavia ___3___, Afganistanen eta orain berriro ere Iraken erabili ___4___, inork ez du horrelakorik aitortzen. Eraginak, berriz, ___5___ dira. Lurralde horietako biztanleen artean eta tropa erasotzaileen soldaduengan ___6___ ezkutatzekoak dira uranio gutxituaren ___7___.

Arma uraniodunak tankeak eta bunkerrak ___8___ bikainak dira, baita pertsonak kiskaltzeko ere. Buruan daramaten metalaren eraginez oso sarkorrak dira eta ___9___ aurka talka egiten dutenean mila gradutik gorako tenperatura ___10___ dute. Arazo larri bat dute, ___11___: erradioaktiboak dira. Leherketa handien ___12___, uranio partikula txiki-txikiak airean geratzen dira; eta ___13___, arrasto horiek ez dira erraz ___14___, airean 4,5 bilioi urtez egon ___15___ . Uranio partikulak airean, uretan, gorputzaren barrualdean (arnastu eta gero)... geratzen dira. Kutsadura, ___16___, ia saihestezina da. Nahiz eta eragin horiek gehiegi nabaritzen ez ___17___ pentsatu, uranioaren ondorioak gero eta ___18___ dira, ageri-agerikoak: haur jaioberrien deformazioak, nagusien arteko minbizia... baina uranioaren kalteak ez dituzte ___19___ herrialde erasotuetako biztanleek jasaten, armada okupatzaileetako ___20___ ere kalte handia eragiten baitute. ___21___, iturri militarrek kasu horiek ___22___ askorekin estaltzen dituzte (Balkanetako sindromea, Bagdadeko pneumonia...).

___23___ lurraldeen kutsadura-maila ikaragarria dela ___24___ dute adituek. Lurralde horietan normala den uranio-___25___ milaka aldiz biderkatzen da. Zalantzarik gabe, horrek gizakien osasunean kalte oso handiak eragiten ditu. Soldadu gazte asko ___26___ betean joaten dira gerretara, baina itzultitakoan ___27___ jotzen dituzte, indarrrik gabe dira, ez dira ia ezertarako ___28___... Adituen esanetan, mundu guztia dago arriskuan, uranio-partikulak soldaduen bidez beraien herrialdeetara hel ___29___ eta, baina baita uraren edo haizearen bidez ___30___ . Europan, uranio gutxituaren arazoa, ___31___, Balkanetako gerra garaian piztu zen. Izan ere, modu nahiko bitxian, bertan ___32___ soldadu ugari gaixotzen hasi ziren, eta ___33___ kasutan hil ere egin ziren. ___34___, hori izan zen soldadu espainiar baten kasua. ___35___ jota hil zen, baina oso modu berezian. Kosovon lau hilabetez egon ondoren, 2000. urteko urrian etxera itzuli zen, eta azaroaren 30erako hilda zegoen, ___36___ . Medikuen esanetan, leuzemia kasurik larrienetan ere ez da ___37___ heriotza azkarra gertatzen.

luz Hanburgon egindako ___38___, ikerlariak, irakasleak, soldadu izandakoak eta GKEko (Gobernuz Kanpoko Erakundeak) ___39___ aho batez eskatu zuten uranio gutxituaren erabilera ___40___ . Uranioa suntsipen handiko tresnatzat jo zuten, eta Genevako ___41___ arabera ez dela erabilgarria aldarrikatu zuten. Agintari politikoak, ___42___, bestelako jarrera dute ___43___ aurrean. Trabak baino ez dituzte ipintzen. ___44___, AEBko (Ameriketako Estatu Batuak) armadako koronel batek 90. hamarkadan Golkoko gerran zauritutako soldaduak ikertzen jardun zuen. ___45___ aditu handia da bera, eta uranioz kutsatutako soldaduak ikertzen hasi zen ___46___, armadak lan horretatik baztertu zuen. ___47___, beste batzuen laguntzarekin, munduko laborategi independente garrantzitsuena osatu du. ___48___, munduko herrialde batek ere ez dio lagundu. Partikularren bidez eskuratu du laguntza. Orain gutxi Iraken izandako soldadu-talde bat ikertzeko aukera izan du eta emaitzak oso-oso ___49___ dira. Bera AEBkoa izan arren, azterketa guztiak Alemanian egiten ditu orain, Ipar Amerikan laborategiak itxi, ikerketak oztopatu eta ___50___ ugari jaso baititu.

BERRIA, 2004ko urtarrilaren 25a
EGOKITUA

1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** « HILTZAILE IKUSEZINA »
- **Teknika:** Cloze-testa

- | | | | |
|---|--|--|--|
| 1. a) ote
b) al
c) ohi
d) antza | 2. a) baino
b) bezala
c) bestela
d) beste | 3. a) zegokionean
b) zirudienean
c) zeritzonean
d) zebiltzanean | 4. a) zutenez gero
b) bazuten ere
c) zenerako
d) zenik |
| 5. a) nabariak
b) ohartuak
c) baimenduak
d) saiatuak | 6. a) omen
b) ezin
c) ia
d) noski | 7. a) damuak
b) arrazoiak
c) kalteak
d) azalpenak | 8. a) gidatzeko
b) erabakitzeko
c) antolatzeko
d) suntsitzeko |
| 9. a) helburuari
b) helburuan
c) helbururantz
d) helburuaren | 10. a) garraiatzen
b) argitaratzen
c) eragiten
d) frogatzen | 11. a) ez ezik
b) ordea
c) demagun
d) halaber | 12. a) berehala
b) ondoren
c) orduko
d) barru |
| 13. a) batik bat
b) gainera
c) batera
d) alderantziz | 14. a) desegiten
b) aurreratzen
c) agertzen
d) handitzen | 15. a) badaitezke
b) daitezkeelakoan
c) baitaitezke
d) daitezkeenik | 16. a) ere bai
b) dena dela
c) adibidez
d) beraz |
| 17. a) diren
b) direla
c) direnez
d) dira | 18. a) ugariago
b) ugariagoak
c) ugariak
d) ugarienak | 19. a) soilik
b) adina
c) bezain
d) izan ezik | 20. a) soldaduengan
b) soldadutan
c) soldaduekin
d) soldaduak |
| 21. a) Inola ere
b) Esaterako
c) Baliteke
d) Hala ere | 22. a) salaketa
b) epaiketa
c) eztabaida
d) trikimailu | 23. a) Erasotutako
b) Erasotuta
c) Erasotuko
d) Erasotzeko | 24. a) egiaztatu
b) ordezkatu
c) dastatu
d) aztertu |

- | | | | |
|---|--|---|--|
| 25. a) oreka
b) zenbakia
c) kopurua
d) tankera | 26. a) garai
b) sasoi
c) belaunaldi
d) mende | 27. a) erotzat
b) erogatik
c) erotik
d) eroa | 28. a) erruki
b) kexu
c) damu
d) gauza |
| 29. a) lezake
b) litezke
c) litzateke
d) lituzke | 30. a) izanik ere
b) ezer ere
c) ezta ere
d) ere | 31. a) batez ere
b) badirudi
c) hortaz
d) bide batez | 32. a) zekiten
b) zeutzan
c) ziharduten
d) zihoazen |
| 33. a) zenbait
b) ugari
c) dezente
d) samar | 34. a) Horregatik
b) Hain zuzen ere
c) Gehienez ere
d) Badaezpada ere | 35. a) Leuzemiak
b) Leuzemiarekin
c) Leuzemiaz
d) Leuzemiagatik | 36. a) oraindik
b) jada
c) oraingoaz
d) arte |
| 37. a) horrenbeste
b) horrela
c) horren
d) hainbat | 38. a) gertaeran
b) hizkeran
c) bilkuran
d) heziketan | 39. a) ordezkoeak
b) ordezkapenek
c) ordezkagarriek
d) ordezkariak | 40. a) debekatzen
b) debekatzu
c) debekatzegatik
d) debekatzeko |
| 41. a) atalaren
b) eremuaren
c) hitzarmenaren
d) hitzorduaren | 42. a) auskalo
b) era berean
c) alegia
d) aldiz | 43. a) auziaren
b) eskaintzaren
c) ekintzaren
d) ereduaren | 44. a) Hau da
b) Kasurako
c) Orduan
d) Azken batean |
| 45. a) Erradioaktibitatean
b) Erradioaktibitateko
c) Erradioaktibitatezko
d) Erradioaktibitatearen | 46. a) beharrez
b) heinean
c) tartean
d) lehenago | 47. a) Aurrerantzean
b) Aspaldian
c) Gerora
d) Jarraian | 48. a) Berritua
b) Betera
c) Gehienez ere
d) Nolanahi ere |
| 49. a) argitsuak
b) arduratsuak
c) esanguratsuak
d) indartsuak | 50. a) sari
b) igurtzi
c) mehatxu
d) keinu | | |

1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** « HILTZAILE IKUSEZINA »
- **Teknika:** Cloze-testa.
- Irakurmenaren atala gaindituzat emateko, gutxienez 30 itemi erantzun beharko die zuzen azterketariak.

ERANTZUN ZUZENAK

1.	C	2.	A	3.	C	4.	B
5.	A	6.	B	7.	C	8.	D
9.	D	10.	C	11.	B	12.	B

13.	B	14.	A	15.	C	16.	D
17.	B	18.	B	19.	A	20.	A
21.	D	22.	D	23.	A	24.	A

25.	C	26.	B	27.	A	28.	D
29.	B	30.	D	31.	A	32.	C
33.	A	34.	B	35.	A	36.	B

37.	C	38.	C	39.	D	40.	D
41.	C	42.	D	43.	A	44.	B
45.	A	46.	B	47.	C	48.	D
49.	C	50.	C				

2. IDAZMENA

- **Teknika:** ESKUTITZA
- **Oharrak:**
 - Gutxienez 245 hitz idatzi behar dituzu (35 bat lerro).
 - Zaindu eskutitzaren zuzentasuna, aberastasuna eta jatortasuna.
 - Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

GAIA: Bizi zaren hiriko zenbait kale, oinezkoentzat bihurtu dituzte. Baita zure kalea ere. Hemendik aurrera arazo handia izango duzue, inguruan aparkatzeko lekurik ez baitago.

Auzotarrek alkateari eskutitz bat idazteko aukeratu zaituzte. Azal iezaiozu erabakiarekin ez zaudetela ados eta egoera konpontzeko eskatu.

5

10

15

20

25
